


NDF-REN AURREIKUSPENAK

Munduko hazkunderako arriskuak areagotu dira

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020

NDFk urtarrileko txostenean zenbatetsi du munduko ekonomia %3,5 haziko dela 2019an eta %3,6, berriz, 2020an. Datu horiek bi hamarrenetan eta hamarren baka-reen gutxitzen dituzte, hurrenez hurren, urriko txosteneko aurreikuspenak. BPGaren hazkundera %3,7an kokatu du 2018rako.

Merkataritzako tentsioen gorakada, finantzaziorako baldintza gogorragoak, Erresuma Batua EBtik akordiorik gabe irtetea eta Txinako ekonomia aurreikusi dena baino gehiago moteltzea dira erakundeak aipatzen dituen arrisku nagusietako batzuk.


NDFren aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2018	2019	2020	2019	2020
Munduko ekonomia	3,7	3,5	3,6	-0,2	-0,1
Ekonomia aurreratuak	2,3	2,0	1,7	-0,1	0,0
AEB	2,9	2,5	1,8	0,0	0,0
Eurogunea	1,8	1,6	1,7	-0,3	0,0
Alemania	1,5	1,3	1,6	-0,6	0,0
Frantzia	1,5	1,5	1,6	-0,1	0,0
Italia	1,0	0,6	0,9	-0,4	0,0
Espainia	2,5	2,2	1,9	0,0	0,0
Erresuma Batua	1,4	1,5	1,6	0,0	0,1
Japonia	0,9	1,1	0,5	0,2	0,2
Garatzen ari diren herrialdeak	4,6	4,5	4,9	-0,2	0,0
Txina	6,6	6,2	6,2	0,0	0,0
India	7,3	7,5	7,7	0,1	0,0
Errusia	1,7	1,6	1,7	-0,2	-0,1
Brasil	1,3	2,5	2,2	0,1	-0,1

Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa.


Ekonomia aurreratuen BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Garapen bidean dauden ekonomien BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Ekonomia aurreratuen 2019ko hazkundera hamarren bat beheratu du. Berrikusketa esanguratsuenen artean, Alemaniari apal dutako sei hamarrenak daude, herrialde hartako kontsumo pribatua eta industria ekoizpena ahuldu direlako. Italian, barne eskariaren ahultasunak eta arrisku sari altuak ekarri dituen finantziarioko kostu handiagoei beheranzko lau hamarreneko berrikusketa ekarri dute. Frantziaren kasuan, jaitsiera txiki bat egin du, kaleko protestek eta industria alorreko neurriek izan duten eragin negatiboarengatik.

Garapen bidean dauden ekonomiei dagokienez, NDFk %4,5eko hazkundera zenbatetsi du 2019an, aurreko aurreikuspena baino bi hamarren gutxiago. Jaitsiera hori Mexikoren hazkunde txikiagoak eta Venezuelako beherakada are biziagoak azaltzen dute.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.